




PERSPEK- TIBATIK PROSPEK- TIBARA



Egoera eta prospektiba: 2030eko euskaldun elea-niztuna hitzaldiaren ostean zazpikote batek izandako elkarrizketaren kronika da eskuartean, edo pantaila aurrean, duzun hau. Ez baduzu oraindik irakurri, aurrez ale honetan irakurgai duzun Xabier Barandiaranen artikulua irakurtzea gomendatzen dizut. Izan ere, Barandiaranen hitzetatik abiatzea egokitu zitzaigun Isaaki, Mireni, Agerri, Erramuni, Iñigori, Xabierri eta niri.

Gai konplexua zen eskuartean genuena; etorkizunera begiratzea eskatzen zitzaigun, baina horretarako, helduleku bat behar genuen. Helduleku hori orain artean egindakoari perspektibaz begiratzea izatea hobetsi genuen, prospektibarako abagune interesgarria zelakoan. Euskaldunok lortutakoa, egindakoa eta bizitakoa aintzat hartzea eta eskertzea garrantzitsua izan zen guretzat; euskalgintzak, herrigintzak, hezkuntzak, komunitateak, hizkuntza politikek eta norbanako askok egindako guztia, hain zuzen ere. Halaber, egindakoaren gainean perspektiba hartu eta oinarritzko hainbat galdera planteatu genituen horietatik etorkizunerako aukeren xehetasunak zirriborratzeko. Den-denak ezin ditut kronika honetan jaso, baina testuan zehar ahaleginduko naiz ahots ezberdinen tonua eta ekarpen nagusiak jasotzen.

2030era begiratzeko, eraldaketa sozialak, ekonomikoak eta politikoak euskaldunengan duen eragina aztertzea ezinbestekoa da: globalizazioak, digitalizazioak edo teknologiek eta agenda politikoak markatu dituzten erronkak Euskal Herritik begiratu eta ulertu behar ditugu eta hortik heldu behar diegu desafioei. Mundura zabaltzeak eta muga fisiko, birtual eta emozionalak gairatzeak izan dute eragina gure herrian, gure komunitatean. Gizartearen

norbanakotzeak balio sistemaren aldaketa ekarri du, aniztasuna areagotu da eta demokrazia liberalaren krisiak gizarteratzeko espazio publikoak biderkatu eta estatalizatu ditu. Euskal Herriko ekonomia munduarekin interdependentzian dago, eta orain inoiz baino gehiago igartzen dugu hori. Gu geu ere, euskaldunok, munduarekin konektatuta gaude. Interpelatuak sentitzen gara maila ekonomiko, sozial eta politikoan; gure agenda publikoa eta garapen eredia berpentsatu beharra dugu errealitate erlatiboak sortzeko prozesuan nor izan nahi badugu.

Arestian laburtutako eta Barandiaranek sakon azaldutako testuinguruan, argi daukagu hizkuntzek ere aldaketak jasaten dituztela; hizkuntzen egoera aldatzen da gu geu aldatzen garen bezala. Pentsamoldeak ere aldatzen dira eta Euskal Herria ere aldatu da, aldatzen ari da eta aldatuko da; egoera egonkorrak laborategietan soilik ematen direlako. Askotan, ordea, hizkuntzak paisaia linguistikoan altxor estatiko gisa ulertu izan

dira edo ditugu; espazio zehaztuetako instrumentu gisa. Gure ustez ziklo instrumentala gainditua dugu dagoeneko; euskara ez da modu isolatuan espazio konkretu batzuetan aritzeko tresna solik. Ondorioz, herri bezala oinarrizko eztabaida falta zaila iritzi genuen taldean. Gaur egun bizi dugun testuinguruan eta 2030ari itxaropentsu begiratu nahi badiogu, bada momentua oinarrizko galdera bat planteatzeko: euskaldun eleaniztunak norma izango badira 2030ean, ze leku eman nahi diogu hizkuntza bakoitzari? Nola kudeatuko dugu eleaniztasuna bihar-etziko gizartean? Euskararen hainbat diskurtsok lagundu digute errealitatearekin kontrastea egiten eta ikusi dugu diskurtsuak eta estrategiak egokitu behar ditugula arestian laburbildutako testuingurura; hau da, agenda politiko berriarekin (aldaketa klimatikoa, digitalizazioa, aniztasuna...) lotu behar dugu euskara eta herria.

Gizarte arazoei erantzuteko binkulazio afektiboa beharko dugu eta zentzuz jantzi behar ditugu euskara eta beste hizkuntzak. Hizkuntzen arteko elkarbizitza sano bat definitu beharko dugu, konplexuak alde batera utziz eraiki behar duguna alegia. Euskararekin eta gainerakoekin batera egin beharko dugu bidea. Izan ere, aniztasuna eta interdependentsia ez dira aukera, garapena bermatzeko eta biziraupenerako baldintza dira. Euskal komunitatea beste hizkuntza batzuek baliatu beharko da giza komunitate esanguratsu eta indartsu bat eraikitzeko eta ditugun gabeziak aboratzeko epe

motzeari.

Komunitate politiko izaerari eutsi beharko diogu erantzun kolektibo eta desberdinek emanek Euskal Herriak. Paragrafo hasieran aipatutako binkulazio afektibo horretarako, ekosistema baten beharra daukagu. Euskararen ardaztutako ekosistema bat, norbanakoa eta sistema elkarrekintzan jarriko dituen eta eszenatoki konplexuetan kolektiboa indartuko duena. Krisi sistemikoren testuinguruan, balio sistemen ekarpena traxionatzeko estrategia bat garatzen lagunduko digun ekosistema bat behar dugu, zeinen bidez euskara ingurune anitz eta konplexuan hazi egingo den.

Finean, gizarteko sistema osoarekin berkonektatu beharko dugu gure hizkuntzari lehentasuna eman nahi badiogu. Horretarako, ekarpenetan eta diskurtsuetan asmatu beharko dugu, markari begiratu beharko diogu, ukiezinen sedukzioa beharko dugu eta herrigintzaren eta gobernantza ereduaren paradigma berri bat beharko dugu, besteak beste. Sistema instituzionalen eta gizarte eragileen artean erresistentziak gainditu, indarrak batu eta politika publiko esanguratsuak egin behar ditugu euskarak merezi duen tokia izan dezan. Era berean, ulertu beharko dugu gaur egungo eta bihar-etziko belaunaldientzat Euskal Herria munduan kokatzen dela, are gehiago, hainbatentzat, Euskal Herriak pentsatu eta euskaldun badira ere, gure herria txiki geratuko dela eta beste hizkuntza batzuk izango dira mundu zabalera irekitzeko eta mundu zabalean ibiltzeko aukera.

Euskararen kasuan ere, faktore identitarioa indartu beharko dugu; instrumentua izatetik emozio izatera pasa. Onartu beharko dugu beraz, munduan kokatzeko eta hizkuntzen biziraupena bermatzeko, esparru batzuetan hizkuntzen erabilera malgurako aukerak diseinatu beharko ditugula. Ekosistemaren barruan kokatu beharko ditugu lotura guztiak eta aukerak eman gazteei euskara erabili dezaten esparru ezberdinetan. Gazte guztiei eman beharko diegu aukera lotura horiek eraiki eta zaintzeko ez soilik hizkuntza -zein kultura, noski- transmisioa etxetik dakarten horiei. Izan ere, horien lotura emozionala indartsu antzematen baditugu oraindik, edo esperantza hori izan genuen taldean. Eta euskarari eman nahi ditugun lekua definitzen goazela, esparruak irabazi

beharko ditugula argi dugu; esparruz esparru eraikitako itunak beharko ditugu. Azken aldian ikerketa askoren datuak ezagutu eta aztertu ditugu eta ikusi dugu kontsumo ohiturak aldatu egin direla; jatorrizko hizkuntzan ekoizturiko baliabideen kontsumoa igo egin da, hain zuzen ere. Euskararen kasuan, beraz, beharko ditugu ekoiztu kontsumorako produktuak, produktu sofistikatuak, eta horrek eskatuko digu apustu sendo bat egitea etorkizunera begira. Hots, komunikazio sistemen estrategia berdefinitu eta inbertsioak egitea nahitaezkoa izango da.

Modu ezberdinetan hasi gaitzke bidea edo/eta bideak eraikitzen eta esparru horietako bat izan daiteke herria, joko zelai soziala. Herri txikiak edo ertainak, ez direnak sekula izan infernu handiak. Herrien oinarrizko egiturek eskaintzen dituzten aukerak baliatu ditzakegu eta sareak eraiki bertatik: sareak espazioen artean, sareak agenda politiko berriarekin, sareak taldeekin eta sareak pertsonekin. Euskaldunak asko eta askotarikoak gara eta komunitate esanguratsuak dira behar ditugunak gure herrietan; herrien eta herritar bakoitzaren eta guztien inplikaziotik aukerak sortuz eta errealitate konplexuetara egokituz gure gizarte politikak. Tokian tokikoa aztertu eta landu beharko dugu; izan ere,

diagnostikoak eta egoerak fin egin behar ditugu egoera ez delako homogenea. Leku batzuetan beste batzuetan baino baliabide eta bitarteko gehiago jarri beharko dugu eta horretarako ere, malguak izan beharko gara 2030erako prospekzioak egiterakoan.

Herri mailako aukerak eta politikak nahitaezkoak badira ere, badugu beste egiteko bat herri bezala: 2030eko euskaldun elea nitzen eztabaida, alderdi politikoen superbibentziatik, maila elektoraletik, maila eta adostasun kolektibo, komunitario eta norbanakoaren konpromisoetara eramatea. Estrategia, ekintza eta adostasunez gain, sinetsita gaude testuinguru eta erronka sozial, ekonomiko eta politikoez jakitun, euskarak baduela etorkizuna, euskaldunok etorkizuna dugulako.